



0002ZBK.



# ZALLAREN ALDE

## ZALLAKO EAJ/PNV- K BERE UDAL TALDEA BERRANTOLATZEN DU



Javi Santiago, Esther Laso, Edurne Torices, Iñaki Lazkano

Orain garai berri bati aurre egin behar diogula aurkitzen gara, non Zallari erakutsiko diogu higadura ez dagoela, baizik eta idei berriak, ilusioa eta batasuna.

Hiritarren KONFIANTZA berreskuratu behar dugu eta jarraitzaile eta alderdikideen laguntzarekin

### ORAINALDIA LAN EGINGO DUGU ETORKIZUNA LORTZEKO.

EAJ/PNV- rentzako egoera berri bat da, hutsetik hasten den **ERRONKA** baten aurrean gaude, baina **MOTIBAZIOZ** betetako motxilarekin.

EAJ/PNV- ko zinegotziek betiko gogo eta ahaleginekin oposizioa egingo dute gure herriaren alde. Irrotasunarekin moldatuko dute oposizio proposamen marrak, behar denean ziztatzailea eta beti elkarrizketatzailea.

Zallako auzokideen edozein zalantza, proposamen edo kexa erantzuneko dute eta udalaren gaiaz informatzeko konprometitzen dira.

**ANIMO ETA INDARRA, ZINEGOTZIEK!!!!**

**GORA ZALLAKO EAJ/PNV!!!!**

## EAJ- PNV- K GANEKOGORTA BABESTEN DU

Euskal Nazionalista Taldeak Ganekogorta parke eolikoaren instalazioaren kontrako jarrera adierazten du ordeko proposamen bat eginez, estutuz eremu hau energia eolikoaren lurraldeko sektorial planak "parke eolikoaren ezarpenerako eremu baztergarria bezala azaltzera". Udalbatzak guztien adostasunez "otsoaren taldea"- ren osoko mozioa onartzen du EAJ- PNV- ko ordeko proposamenarekin.



Azken hilabetetan Zallako EAJ/PNV- k bere Udal Taldea berrantolatu du bi zinegotzien borondatezko dimisio arrazoi pertsonalengatik.

Alde batetik, azaroan Salva Garaik jarrera hori hartzera eraman dizkion arrazoiak komunikatzen ditu: "erabakia guztiz pertsonala da, hartu nuena, udal hauteskundeetako emaitzak oinarri hartuta". Zallako EAJ/PNV- k Salvari eskerrak ematen dizkio bere konpromisu politiko, bere lana eta azken urteetan zinegotzi moduan izan duen arduragatik.

Salva Alderdi gizona da eta bere kargu publikoan eskuratu dituen esperientzia eta ezaguerak EAJ/PNV- ren zerbitzura jartzen ditu.

### ESKERRIK ASKO SALVA zure lanagatik eta alderdikide zintzo bat izateagatik

Beste alde batetik, urtarrilean Leandro Kapetillok Alderdiko bajaren eskaera komunikatzen du, bere hitzetan: "Alderdirako eta beretzat onena izan daitekeelako" eta zinegotzi karguaren dimisioa ematen du "arrazoi pertsonalengatik".

Norbaitek erabaki pertsonala hartzen eta argudiatzen duenean, gutxi gehitu ahal da, partekatuta edo ez izan ahal da, baina beti errespetatuta egon behar da.

Jarrera irmo honen aurrean, Alkate beterano eta zinegotzi moduan urteetan zehar emandako arduraren errespetuari deialdi bat egitera bakarrik geratzen da, gure herriko ezin hobe gestioaren onarpena eta hauteskunde garaipenak lortzeko eman digun laguntzagatik.

Berak lideratu dituen Gobernu taldeen lan nekazinen gaitasunen lekuko izan gara eta emaitza bistan da, bakarrik gure herriari begirada botatzea besterik ez da egin behar eta bere azpiegiturak, zerbitzu eta gestio ekonomikoak konprobatzea. Pertsonal eta borondatezko erabakia izan dela modu argi eta zehatz batean transmititzera behar gaude eta inork ez diola esan joateko.

## EAJ- PNV- KO ESKAERAK UDALBATZAN

Aparteko osoko bilera 2012- ko urtarrilaren 20

Euskal Nazionalista taldea hiri antolamenduaren plan orokorrean herritarren partaidetza programaren alde manifestatzen da.

EAJ- PNV -k proiektu honetan interesa dauka, ez derrigorrezko karaktere izateagatik baizik eta saio on bat izateagatik lan irizpideak ezartzeko herritarren partaidetzarekin.

Eskatzen dugu:

a) Udaleko Planeagintzaren Kontseiluaren deialdietan tratatuko diren gaien informazioa alde aurretik eukitzea.

b) "Udaleko Planeagintzaren Kontseilua"- ri buruz hitz egiten denean terminologia berdina erabiltzea, dokumentuan "Urigintza Gizarte Kontseilua" deitzen delako eta hau errakuntzak ekartzen dituelako.

c) Aipamena egiten den planaren inkestean elaborazio eta segimenduan parte hartzea.

d) Talde politiko bezala gonbidatuta izatea auzokide batzar edo beste gertakizunetan, EAJ- PNV- k elkarrekin parte hartu eta lan egin nahi duelako herriaren alde. Parte hartze horretan baztertu gaituzte, gonbidatuta izan ez garen talde politiko bakarria izan gara.

Nahiz eta batzordeen lehendakaritzarik ez izan, talde politiko bezala huraren parte gara eta lan egin, kolaboratu eta parte hartzen ari gara.

Udalaren ekitalde bat denez eta izaera politikoa duenez talde GUZTIAK gonbidatuak izan behar zirela pentsatzen dugu.

Informazio batzorderik buru ez izatea bakarrik gobernua izaten duenaren ondorioa dela ulertzen dugu, herriaren aurrean erantzukizuna duena da eta, gure betebeharrak oposizio konstruktibo bat egitea da lan egiten eta Zallaren interesengatik belatzea.



### ¡¡ZORIONAK MARISTAS ZALLA IKASTETXEA!!

Zallako EAJ/ PNV-K Maristas Zalla ikastetxerari zorionak ematen dizkio Irakaskuntza Kalitatearen Zilarrezko Q saria lortzeagatik. Merezitako aitortpena orain jasotzen duzue proiektu hezigarri bat eramateagatik "KALITATEA" - z balioztatua eta bermatua izan dena.

## KRISIAEN AURREKO ERAGINKORTASUNA

Aurreko korporazioak, EAJ- PNV buru zela, gestio garden, eraginkor eta oso arduadunari esker, aurkitzen garen errealitate ekonomikoaren bere azken ariketan, **6.954.670 €** sortzea lortu zuen krisiari indar handiagoarekin aurre egiteko.

EAJ- PNV- k momentu guztian sekulako funts honen erabilera onaren alde beilatuko du Zallako auzokideen benefiziorako.



## KONEKTA ZAITEZ

<http://www.facebook.com/ZallakoEajPnv>

<http://zalla.eaj-pnv.eu>

[zallakoeajpvn@gmail.com](mailto:zallakoeajpvn@gmail.com)

Telefono mugikorra: 644254665



## ZALLAKO EZKUTUA MANTENTZEKO PROPOSAMENA

Euskal Nazionalista taldeak merchandising (jertseak, eranskailuak, motxilak, polar forruak, gutun- azalak, orriak, etab) produktu guztietan Zallako ezkutua kontutan hartzea eskatzen du. Gure motibazioa gure herriko identitate ezaugarrien kontserbazioa da, bere desagertzearen babestuz.



BEC- aren EKITALDIAPasa den urtarrilaren 15- ean BEC-ean EBB- ko Lehendakari Iñigo Urkulluren jakinarazpen ekitaldia izan zen. Ekitaldi honetara EAJ/PNV- ko alderdikide eta jarraitzaile asko joan ziren eta, gutxiago ezin denez izan, Zallako Uri Batzarreko ordezkari eta hainbat alderdikide.